

## DBH2 GIZarte: "Hurbildu bainintzen garai berriko leihoetara"

### Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Mapen interpretazio historikoa adierazi, munduaren ikuskera anitza islatzen duten hainbat garaitako mapak aztertuz eta haiek islatzen duten mundu ikuskeraz jabetuz.	<p>1.1. Garaiko ezagutzen eta mapen irudikapenen arteko erlazioak identifikatu ditu.</p> <p>1.2. Maparen sorrera-data eta lekua hautatu eta arrazoitu du.</p> <p>1.3. Mapa historikoen interpretazioan dauden akatsak identifikatu eta zuzendu ditu.</p>
2. Aro Modernoko gertaera nagusiak eskema digital batean adierazi, kausak eta ondorioak identifikatu edota inferituz eta finkatutako irizpideen arabera sailkatuz eta euren arteko erlazioak ezarri; horretarako, Iturri ezberdinetako informazioaz baliatuz.	<p>2.1. Aro Modernoko hainbat gertaera eta horien ondorioak erlazionatu ditu.</p> <p>2.2. Aro Modernoko esplorazioen kausak identifikatu eta sailkatu ditu.</p> <p>2.3. Eskema batean adierazi ditu gertaeran kausak.</p>
3. Aro Modernoko pertsonaiei buruz finkatutako irizpideei egokitzen zaien informazioa bilatu eta hautatu, eta biografia- fitxa batean erregistratu, Irakurketa digitala eginez edo esperientzien kontaketa baliatuz.	<p>3.1. Emandako biografiaren akatsak identifikatu ditu, eremu digitaletan informazioa bilatuz</p>
4. Elkarlaneko zereginetan adostasunera iristeko prozedurak aplikatu.	<p>4.1. Taldean burututako zereginetan, taldearen adostasuna lortzeko egiturak aplikatu ditu.</p>
5. Aro Modernoko gizartearen beharren barruan sortutako erakundeak identifikatu eta erlazionatu eta haien funtzioak adierazi, hainbat euskarrirako (animazio, margolan...) informazioaz baliatuz.	<p>5.1. Margolanetan agertzen diren gizataldeen estamentuak identifikatu ditu.</p> <p>5.2. Estamentuen deskribapenak egin ditu, emandako giltza-hitzak erabiliz.</p> <p>5.3. Aro Modernoko gizartearen inguruko akatsak identifikatu eta zuzendu ditu.</p> <p>5.4. Gizartearen beharrak, erakundeak eta horien funtzioak erlazionatu ditu.</p> <p>5.5. Eskatutako aginte moduari buruzko ezaugarriak identifikatu ditu</p>